



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50-Etxabea – 48004 Bilbo

Telefonoa 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97

www.eif-fvn.org

01 / 2024-2025 ZIRKULARRA

EUSKADIKO LIZENTZIEN IZAPIDEAK **2024-2025 DENBORALDIA**

Jarraian azaltzen da denboraldi honetako lizentziak bideratzeko eta bidaltzeko prozesua. Gogoraraztea denoi erabat debekatuta dagoela txapelketa OFIZIALETAN parte hartzea, dagokion eta indarrean dagoen EUSKADIKO FEDERAZIO LIZENTZIARIK gabe, zeinek Lurralde Federazioan eta Euskadiko Federazioan adskribituta egotea suposatuko duen, arau honen konplimendu eza Klubaren eta Lurralde Federazioaren ardura izanik (EIF-FVN-ren Estutuetako II. Izenburua - 9. Art. eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31eko 16/2006 Dekretuaren 23. Art. eta hurrengoak).

Lizentziak bideratzeko hasiera epea zabaltzen da, urriaren 1etik 15era (biak barne). Jarraian eta denboraldian zehar, klubek lizentziak bideratu ahal izango dituzte une orotan, indarrean dagoen prozedurari jarraiki. Hala ere, lizentziak **txapelketa ospatu baino 15 egun lehenago, gutxienez**, bideratu beharko dira eta, nolana ere, inskripzioak formalizatu aurretik. Dagokion Lurralde Federazioa eta EIF-FVN bere kasuan, lizentzia ukatzeko moduan izango dira, epe hori zehazki betetzen ez bada, edo aurreko denboraldietan sortutako fakturak ordaindu ez izana.

Edozein modalitatetan lagapen bat bideratzeko, LAGAPEN ESKAERA (5. ERANSKINA), hogeita hamar (30) lanegunen buruan, EIF-FVN-ren Batzar Nagusian kirol egutegia aurkezten ondoren hogeita hamar (30) egutegi-egun baino lehen aurkeztu beharko da.

1. Lizentziak bideratzea EIF-ren Leverade sistema (edo momentu horretan ezarrita dagoen sistema) bidez eskatuko da.

2. Aldi berean, **KLUBAK** bere **LURRALDE FEDERAZIOAN** ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du dagokion Lurralde Federazioak eskatzen duen moduan:

A.- NAN-ren KOPIA DERRIGORREZKOA DA lizentzia bideratu nahi duen ororentzat. Ez da bideratuko lizentziarik behin-behineko zenbakiarekin. Lizentziaren izapideak egin ahal izango dira NA bideratzeko egiaztagiriarekin, hura eskuratu bitartean

B.- KIROLARIEN kasuan LEGEZKO OSASUN EGIAZTAGIRIA: Agiri non



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50-Etxabea – 48004 Bilbo

Telefonoa 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97

www.eif-fvn.org

egiaztatzen den kirolariak gai dela kirola praktikatzeko (Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31eko 16/2006 Dekretuaren 29. Art. eta hurrengoak Euskadiko Kirol Federaziotako urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 29. Artikuluak dion eran).

C.- TEKNIKARI TITULUAREN KOPIA: Teknikari lizentzia bat eskatzeko, ondorengo titulazioen bat aurkeztu beharko da:

- Monitorea, Entrenatzaile Laguntzailea edota Goi Mailako Entrenatzailea, RFEN-EIEF-ren titulazioak.
- I. mailako Entrenatzailea Igeriketan, II. Mailako Entrenatzailea Igeriketan edo II. Mailako Entrenatzailea Waterpoloan Euskadiko Kirol Eskolak emandako titulazioa (Eusko Jaurlaritzaren titulu homologatua).
 - Waterpolo teknikariaren Prestakuntza Ikastaroa, Euskadiko Igeriketa Eskolak emandako titulazioa.
 - Igeriketa sinkronizatuko teknikariaren Prestakuntza Ikastaroa, Euskadiko Igeriketa Federazioak emandako titulazioa.
 - Jarduera Fisiko eta Kirolaren lizentziatura edo gradua edo Kirol Irakasle gradua.

99/10/1an ospatutako Batzar Nagusian onartutakoaren baitan, Klubek Teknikari Lizentzia bideratzean kontuan hartu beharko dute, gutxienez horietako batek Entrenatzaile Laguntzailearen titulazioa erabilgarri izatea, tituluaren fotokopiarekin egiaztatu behar izanik.

D.- BANKUKO AGIRIAREN KOPIA non justifikatzen den LURRALDE FEDERAZIOARI eskatutako lizentziei dagokien kuota ordaindu izana.

E.- SEXU-DELITUEN ZIURTAGIRIA estamentu guztientzat, kirolariarena izan ezik, non egiaztatzen baita interesdunari buruzko zigor-informaziorik EZ dagoela.

F.- DATUEN BABESA. Datuen babesari buruzko dokumentua.

G.- LURRALDE FEDERAZIOAK eskatzen dituen **BESTE DOKUMENTUAK.**

3. Ez da inolako lizentziarik bideratuko, aurreko bi ataletan adierazia ERABAT betetzen ez bada.



EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN

Julián Gaiarre, 50-Etxabea – 48004 Bilbo

Telefonoa 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97

www.eif-fvn.org

LIZENTZIEN KUOTA

Denboraldi honetarako ondorengo kuotak ezartzen dira lizentzia bakoitzeko, dagokion Lurralde Federazioak EIF-FVN-ri ordainduko diona. Prezio horiek behin-behinekoak dira; hurrengo batzar orokorrean kuota berriak proposatuko dira, eta onartuz gero, urriaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

LIZENTZIA KUOTA: 67 €, ondorengo kontzeptuengatik: EIF-FVN-ren eta dagokion Lurralde Federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko, titularraren osasun arriskuak estaliko dituen asistentzia sanitario derrigorrezko aseguruaren kostearentzako, erantzukizun zibilarentzako eta heriotzagatik eta anatomia zein funtzio galerak direla eta kalte-ordainetarako.

2. JARDUERAK: 37 €, bigarren jardueratzat hartuko da KLUB BERAREKIN jadanik lizentzia bat eskuratua izanik, eskatzen den hura.

Lizentzia eskatzen denean 1. LIZENTZIARENA ez den BESTE KLUB BATEKOA, xede guztietarako 1. lizentzia bezala kontsideratuko da, 67 €-ko kopurua ordaindu behar izanik (edo EIF-FVN-ren batzordeak erabakitzen duena).

Arbitroen kasuan, Lurralde Federazio bakoitzeko Lurralde Batzordeek Klubaren tratamendua izango dute.

Arbitroaren eta txapelketa laguntzailearen Lizentzien kuota **25 €**-koa izango da, beste jarduera batean lizentziarik indarrean izaten ez dutenean (kasu honetan, kuota 0 €-koa izango da).

LIZENTZIEN ORDAINKETA: Lurralde Federazioari egingo zaio, bai kirolarienak eta bai Klubarenak, eta hileroko likidatuko dira EIF-FVN-rekin, kontzeptu hauengatik zor diren kopuruak.

Lizentzien hileko ordainketari dagokionez Lurralde Federazioek eginiko konplimendu ezak dagozkion lizentziak ez bidaltzea eta horretatik eratorri ondorioak ekarriko ditu.